

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat jarduera funtsezkoak direla badakigu, eta horregatik, hasieratik gure lan-prozesua modu antolatuan pentsatu dugu. Jarduera hauek lehentasunen arabera antolatuta daude, proiektua behar bezala garatzeko eta talde osoaren lana koordinatzeko helburuarekin. Gure funtsezko jardueren oinarrian, bezeroarekiko dugun harreman zuzena dago, izan ere, ispilu adimendunak ematen dituen gomendioak pertsonalizatuak izan daitezten, bezeroa ondo ezagutzea ezinbestekoa da.

Gure jarduera nagusiak azaltzeko, ekintza mota desberdinetan banatzea erabaki dugu. Alde batetik, ispilu adimendunarekin lotutako aholkularitza pertsonalizatuaren prozesua azalduko dugu, gure proiektuaren ardatz nagusia delako. Bestetik, zerbitzu osagarriak nola antolatuko ditugun azalduko dugu, hala nola saio bereziak, taldeko aholkularitzak edo kanpoko ekitaldiak.

Ispilu adimendunaren bidezko aholkularitza

Hasteko, ispilu adimendunaren bidezko aholkularitza eskaintzeko, bezeroarekin harreman zuzena izango dugu. Zerbitzu hau edonork eskuragarri izango du, eta bi modutara erabili ahal izango da: aurrez aurreko moduan gure lokalean edo online moduan webgunearen bidez.

– *Aurrez aurreko modua:* Gure ustez, bezeroarentzat esperientziarik aberasgarriena aurrez aurrekoa da, horregaitik, FastLooking ez da soilik pop-up temporaletan edo dendekin lankidetzan eskuragarri egongo; ispiluak zuzenean moda-dendetan ere ezarriko dira, hala nola Zara eta Brownie. Bezeroek probatokiak erabiltzen dituztenean, ispilu adimendunak aholkularitza pertsonalizatua eskainiko die denbora errealean. Ispiluak iradokiko du nola konbinatu arropak, zein osagarri egokitzen den eta zein ekitaldietarako den bakoitza aproposa, FastLooking-en adimen artifizialari esker. Horrela, erosleek ez dute bakarrik arropa nola geratzen duten ikusten, baizik eta estilo-aholkularitza pertsonalizatua jasotzen dute probatokiaren errealeko testinguruan.



– *Webgunearen bitarteko modua:* Gure Webgunea, ahalik eta jende gehiagorengana proiektua helarazteko sortu dugu. Webgunearen bidez, bezeroek online aholkularitza jasotzeko aukera izango dute. Horretarako, formulario bat bete beharko dute, beren gustuei, gorputz-motari edo ekitaldi bereziei buruzko informazioa emanez. Informazio hori jasota, ispilu adimendunaren sistemak gomendio pertsonalizatuak sortuko ditu, eta bezeroari bidaliko zaizkio. Zalantzak izanez gero, bezeroek zuzenean langile batekin harremanetan jartzeko aukera izango dute mugikorreko aplikazioaren bitartez.



Kanpoko ekitaldiak eta kolaborazioak

Horrez gain, gure proiektua ezagutarazteko eta bezero gehiagorengana iristeko, kanpoko ekitaldiak antolatuko ditugu, hala nola erakustaldiak merkataritza-guneetan, ikastetxeetan edo estetika-zentroetan bai eta denda esaguratsuenetan ere. Ekitaldi hauek aurrez antolatuko dira, eta parte-hartzaile kopuruaren arabera egokituko dira.

Modu honetan, gure funtsezko jarduerak modu antolatuan eta malguan kudeatuko ditugu, bezeroaren beharrak beti erdigunean jarriz.

